

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

### 2576

*AGINDUA, 2020ko ekainaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Santurtzi udalerriko San Juan del Rompeolasen 32 babes ofizialeko etxebizitza alokairuan esleitzeko prozedurari.*

#### GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Etxebizitza hauen esleipen-prozedurak Etxebizitza-eskatzailleen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak ezartzen duenari jarraituko dio. Izan ere, horrela ezartzen du Babes publikoko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzuaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikulua. Aipatutako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak aldaketak izan ditu (batik bat alokairuko etxebizitzaren esleipen prozedurari dagokion atalean) 2020ko urtarrilaren 20an EHAAn argitaratu zen dekretuak eraginda (210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, Kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzuaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa).

Bigarrena.– Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2019ko abenduaren 5eko Ebazpenaren bidez behin betiko kalifikazioa eskuratu zuen Santurtzi udalerriko San Juan del Rompelolaseko 96 babes ofizialeko etxebizitzako sustapenak, zeina VISESAk (Euskadiko Etxebizitza eta Lurra) sustatzen baitu eta EB2-0408/14-LC-000 baita bere espediente zenbakia. Agindu honen bidez, etxebizitza horietatik 32 esleitzeko prozedura aratuko da.

Hirugarrena.– Alokairuan esleituko diren 32 etxebizitza horietako 2, hiru logelakoak direnak eta 104,33 m<sup>2</sup>-ko azalera dutenak, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokituta daude. Gai nontzeko 30 etxebizitzetatik, 10 etxebizitza bi logelakoak dira eta 58,76 m<sup>2</sup> eta 61,49 m<sup>2</sup> bitarteko azalera dute; beste 20 etxebizitzak hiru logelakoak dira eta 73,97 m<sup>2</sup> eta 80,85 m<sup>2</sup> bitarteko azalera dute. Etxebizitzak lagatzeko araubidea alokairua izango da. Etxebizitza hauek kupotan bananduko dira laugarren ebazpenean ezartzen den bezala.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari dagokio Agindu hau xedatzea, Babes publikoko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzuaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen denaren arabera, Etxebizitza-eskatzailleen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 48. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena.– abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak (Kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzuaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa) azken xedapenetako zazpigarren artikuluko 4. puntuan, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II. tituluko III. kapitulua aldatzen du,

zeinak arautzen baitu babes ofizialeko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren esleipen-prozedura. Aipatu Dekretuak 2012ko urriaren 15eko Aginduan 47.bis artikulua txertatzen du eta bertan esaten denez, sustapen guztietan –kolektibo jakin bati berariaz bideratutako autonomia-erregimeneko zuzkidura-bizitokiaren kasuan salbu–, etxebizitza kupo batzuk gordeko dira honako kolektibo hauen premiei erantzuteko: elbarritasun fisikoa duten pertsonentzat, 36 urtetik beherako pertsonentzat (adin horretatik beherako gutxienez kide bat duten bizikidetzaren unitateak barne), etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten pertsonak, etxebizitza-premia berezia duten pertsonak, gainerako eskatzaileak edo kupo orokorra. 47.bis artikuluko 5. puntuan aipatzen diren ehunekoak errespetatu behar dituzte kupoek sustapen bakoitzeko.

Hirugarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikulua egungo erredakzioan esaten du etxebizitzaren esleipena 47.bis artikuluan aipatzen diren irizpideen arabera egingo dela hots kupoen arabera, etxebizitzaren egokitasunaren arabera eta 51. artikuluan aipatzen den baremoaren arabera betiere prozeduran onartutako pertsonak edo bizikidetzaren unitateek lortutako puntuazio-ordenari jarraituz. 51. artikulua horrek baremoa arautzen du, honako kontuan izanik: eskatzaileen diru-sarrerak, bizikidetzaren unitateko kide kopurua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroan duten antzintasuna, eta etxebizitza-premia berezia.

Bizikidetzaren unitateko kide-kopuruagatik ematen den puntuazioa bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren eta sustapeneko etxebizitzek duten logela-kopuruaren arabera emango da. Gauzak horrela, logela bateko etxebizitzetarako: puntu 1 emango zaie bi kidez osatutako bizikidetzaren unitateei, eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. 2 logelako etxebizitzetarako: 3 puntu emango zaizkie hiru kidez osatutako bizikidetzaren unitateei, puntu 1 bi kidez osatutako bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Azkenik, 3 edo 4 logelako etxebizitzetarako, 7 puntu emango zaizkie sei kidek edo gehiagok osatutako bizikidetzaren unitateei, 5 puntu bost kidek osatutako bizikidetzaren unitateei, 3 puntu lau kidek osatutako bizikidetzaren unitateei eta puntu 1 hiru kidek osatutako bizikidetzaren unitateei.

Laugarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 27. artikulua zehazten du etxebizitza bat noiz den egokia, bizikidetzaren unitateko kide-kopuruaren eta esleitu beharreko etxebizitzak dituen logelen arabera.

Horrenbestez, aipatutako legezko manuak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusita, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiara ematea Santurtziko udalerriko San Juan del Rompeolas eremuan 32 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko prozedurari; sustapen horren espediente zenbakia EB2-0408/14-LC-001 da.

Bigarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea alokairua izango da.

Hirugarrena.– Esleipen-prozedura honetan Agindu hau argitaratzen den egunean Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alokairuko eskatzaile gisa Santurtziko udalerrian izen emanda daudenean bakarrik hartu dezakete parte, honako baldintzak betetzen badituzte:

a) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko titularretako bat Euskadiko Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon beharko da prozedurari hasiera emateko agindu hau argitaratzen den egunean.

b) 2018. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak 9.000 euro baino txikiagoak ez direla eta 39.000 euro baino handiagoak ez direla egiaztatzea eskatzen da. Baldintza egiaztatzearen izen

ematearen titular guztien diru-sarreraren batura kontuan hartuko da. Mugikortasun murriztua duten pertsonak, desgaitasun psikikoa dutenek edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ez dute gutxienezko diru-sarrerarik egiaztatu beharko, ez eta etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa onartuta daukaten eskatzaileek.

c) Etxebizitza jabetzan, azalera eskubidean edo gozamenean ez eduki izana agindu hau argitaratzen den eguneko aurreko bi urteetan. 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9. artikuluan jasotako etxebizitza premiaren baldintzaren salbuespenak ezarriko dira.

d) Sustapen honetan ezin izango dute parte hartu 6 kide baino gehiagok osatutako bizikidetzak unitateak.

Laugarrena.– Esleitu beharreko etxebizitza horietatik honako hauek gordeko dira:

a) 2 etxebizitza, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokitutakoak. Etxebizitza horiek esleitzeko, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 52. artikuluko egungo ezarpenei jarraituko diegu, hau da: lehenik eta behin, desgaitasun-maila onartu, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskinean A letrarekin kalifikatuta dagoen desgaitasunen bat duten pertsonak esleitu zaizkie etxebizitzak; gero, 2. eranskin horretan B letrarekin kalifikatuta dagoen desgaitasunen bat duten pertsonak, eta, azkenik, 7 puntu edo gehiago eskuratzen dituztenei eranskin bereko Dtik Hrako letretan ezarritakoak batuz.

b) 30 etxebizitza gainerako eskatzaileen artean, kupo hauetan banatuta:

9 etxebizitza (sustapen honetan esleitu direnen % 30) 36 urtetik beherako pertsonen artean esleitu dira, adin horretatik beherako gutxienez kide bat duten bizikidetzak-unitateak barne.

4 etxebizitza (sustapen honetan esleitu direnen % 13) etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten pertsonen artean esleitu dira.

9 etxebizitza (sustapen honetan esleitu direnen % 30) etxebizitza-premia berezia duten pertsonen artean esleitu dira.

8 etxebizitza (sustapen honetan esleitu direnen % 27) gainerako eskatzaileen artean (kupo orokorra) esleitu dira.

Kupo hauetako batean etxebizitzak esleitu gabe geratuko balira etxebizitza hauek handitu egingo lukete kupo orokorrera bideratutako etxebizitzen kupoa.

Bosgarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 47.bis 2. artikulua egungo erredakzioan esaten duenari jarraituz, hainbat kolektibotako kide diren pertsonak edo bizikidetzak-unitateak, etxebizitzen kopuru handiena duen kupoko taldera sartuko dira.

Seigarrena.– Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak sustapen honetako esleipen-prozeduran parte hartu nahi badute, dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute 2020ko uztailearen 7tik uztailearen 30era bitartean (biak barne) hauetako bide baten bidez:

– Telefonoz: Etxebideko web gunean <http://www.etxebide.euskadi.eus> argitaratuko den telefono zenbakira deituta eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-ohol elektronikoan ere ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) > egoitza elektronikoa > iragarki taula) argitaratuko den telefono-zenbakira deituta.

– Postaz: Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, Kale Nagusia 85, 6. solairua, 48011-Bilbao.

– Telematikoki: <http://www.etxebide.euskadi.eus> web gunearen bidez.

Zazpigarrena.– Onartutako eskaerak hurrengo lerroetan jasotako barematzeko irizpideen arabera puntuazioa jasoko dute Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 51. artikulua dioenari jarraituz.

a) Diru-sarrerak: 10 puntu emango zaizkie 0 eta 9.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei; 9 puntu, 9.001 eta 15.000 euro bitartekoak dituztenei; 8 puntu, 15.001 eta 25.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei, eta 5 puntu 25.001 eta 39.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenei.

b) Bizikidetzaren unitateko kide kopurua: bizikidetzaren unitateko kide kopurua puntuatzeko orduan, sustapeneko etxebizitzaren logela kopurua hartuko da kontuan. Logela bakarreko etxebizitzak: puntu 1 emango zaie 2 kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Bi logelako etxebizitzak: 3 puntu emango zaizkie 3 kide dituzten bizikidetzaren unitateei, puntu bat 2 kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Hiru edo lau logelako etxebizitzak: 7 puntu emango zaizkie 6 kide edo gehiago dituzten bizikidetzaren unitateei, 5 puntu 5 kide dituzten bizikidetzaren unitateei, 3 puntu 4 kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta puntu bat 3 kide dituzten bizikidetzaren unitateei.

c) Antzintasuna etxebizitza-eskatzaileen erregistroko inskripzioan: puntu 1 emango da antzintasun handiena duen bizikidetzaren unitateko kidearen inskripzio-urte bakoitzeko; 7 puntu emango dira gehienez ere.

d) Etxebizitza-premia berezia: 4 puntu emango zaizkie etxebizitza-premia bereziko kolektiboren bateko titularren bat duten espedientei. Desgaitasun intelektual edo garapen-desgaitasunen bat duten pertsonen eta gaixotasun mentalen bat duten pertsonen dagokienez, 4 puntu emango zaizkie hori egiazta dezaketen bizikidetzaren unitateko kideren bat duten espedientei. Kolektibo bateko baino gehiagoko kide direnei, 4 puntu emango zaizkie horietako bakoitzeko; 8 puntu emango dira gehienez ere.

Zortzigarrena.– Kontuan izango den baremazioa Agindua hau publikatuko den eguneko izango da. Berdinketa kasuan, antzintasun handiena duen eskaeraren aldeko ebazpena emango da eta, antzintasuna ere berdina bada, etxebizitza-eskatzaileen erregistroan lehenengo sartu zena aukeratuko da.

Bederatzigarrena.– Sustapen honetako bi logelako etxebizitzak esleitzerakoan gehienez 4 kideko bizikidetzaren unitateei esleituko zaie, hiru logelako etxebizitzak esleitzerakoan gehienez 6 kide dituzten bizikidetzaren unitateei esleituko zaie.

Hamargarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikuluko bertsioan eguneratuan ezarri bezala, etxebizitzak esleitzeko orduan, 47 bis artikuluan aipatzen diren kupoak, etxebizitzaren egokitzapena eta prozeduran sartutako pertsonen edo bizikidetzaren unitateen lortutako puntuazio-ordena hartuko dira kontuan, betiere 51. artikuluan xedatutako baremoa aplikatuz.

Hamaikarrena.– Esleipena amaitutakoan, prozeduran dauden kupoak bezainbeste itxarrote-zerrenda egingo dira, parte hartu bai baina etxebizitzarik eskuratu ez dutenak egongo direla barruan. Itxaron zerrendak amaitu ondoren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 59. artikulua ezarritakoari jarraituko zaio esleipenak egiteko.

Hamabigarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektroni-

koaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratuko dira ([www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) > egoitza elektronikoa > iragarki taula).

Hamahirugarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioket Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,  
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.